



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abaila ziztua, abiada	Berebiziko abailan , Ingalaterra, Mantxako itsasarte eta Frantziaren azpitik igaro gara.	133
abede abezea, alfabetoa	Abede runikoa da. Snorren Turlesonen eskuidatzien antzekoa. Baina islandiera zaharrez idatzia.	13
abere animalia	Izan ere, abere haietako edozeinek ukitu orduko botako gintuzkeen pikutara.	124
ahapeka isilka-misilka, xuxurlaka, isilean	— Nik menperatuko haut! —zioen behin eta berriz ahapeka .	55
aitzurtxo orturako lanabesa (<i>azada</i>)	Erreminten fardelean, bi aitzurtxo , beste bi aitzur...	49
alabatzako alaba adoptatua	...etxe osoa, kanpo eta barru, berea zuen. Han bizi ginenok ere bai: Gauben alabatzakoa , Marya neskamea, eta ni neu.	11
almadia enborrekin eginiko baltsa	Popatik bultzatzen zuenez gero, abiada lasterrean zihoan almadia .	115
amu beita jartzeko euskarria (<i>anzuelo</i>)	Hansek, eguerdian, haragi pusketa amuari erantsi eta itsasora bota du.	116
apal xumea, umila	Bizileku apal eta patxadatsua da	9
apar bitsa, haguna (<i>espuma</i>)	Haizearen eraginak apar arin bat zekarkidan aurpegira.	108
apoarmatu galapagoa, itsas dortoka	Esna, ametsetan ari naiz. Ur gainean, diruditen apoarmatu ikaragarriak ikusten ditut.	119
ardagaia sua pizteko gaia (<i>yesca</i>)	...bolbora eta ardagaia ere bazeramatzan.	50
arlote txiroa, landerra, pobrea	Bizileku arlote bat zen hura.	53
aseta lasaituta, kenduta	Gau hartan, egarria aseta , lo ederki egin genuen...	90
aukera abagunea	Ez diot horrelako astakeria egiteko aukerarik emango	21
aztoratuta larritu, urduri jarri	Osabaren langelatik aztoratuta atera nintzen, neure onetik irtenik.	30
badaezpada ere zer gerta ere	Hansek, berriz, betetako kalabazaz gainera, kantxilkada bat ur gehiago hartu zuen, badaezpada ere.	58
bakan banaka, gutxi	Etxe bakan batzuk osatutako herri koskor bakarti bat da.	51
barau jan gabe egotea (<i>ayuno</i>)	Eta hala baldin balitz, nire barau eta gosealdiak alferrekoak ziratekeen.	24
barrena zehar, gaindi	Hiriko kaleetan barrena , egurastu asmoz ibili nintzen, eta ordubete beranduago, baretuagoa zegoen.	32
bazter ertz	Putzu bertikal batera erortzea egokitu zitzaidan, jauzika nindoala behera bazterrekin gorputz guztia urratuz.	104
bazter ertz	Itsas bazter hartan ikusmiran hasi ginen	109
bedi izan dadila horrela	Bedi , «Graüben golkoa» beraz onetsi zuen irakasleak.	115
behinik behin behintzat, bederen	Ezbeharrrik ez genuen izan behinik behin , eta pozik geunden.	52
bekaizkeria inbidia, ondamura	Bekaizkeria asko baitago munduan.	27




bekoki kopeta	Berrogeita hamar urte izan arren, gazte itxura zemaion bekokia zuen...	11
bezperako aurreko eguneko	Lurralde, berriz, bezperakoaren antzekoa zen.	54
bostekoa luzatu eskua eman	Etxeko jaunak bostekoa luzatu zigun agurtuz, eta etxera sartu ginen.	53
branka itsasontzien aurreko aldea	Feroe irlen aldera zuzendu zuen branka ...	42
buia itsasoko baliza	...Skagen muturreko buia agertu zitzaigun ekialdetik.	44
burubide plana	...Martak, jakiak ekarri ondoren, berehala egin zuen bazkariaren burubidea .	27
damutu garbatu (<i>arrepentirse</i>)	—Dena dela —esan nion— ni ez naiz damutuko . Ikusgarri zoragarria da hau.	122
deiadarka garrasika, oihuka	Deiadarka aurkitu genituen...	33
egokitu suertatu, gertatu	Putzu bertikal batera erortzea egokitu zitzaidan, jauzika nindoala behera bazterrekin gorputz guztia urratuz.	104
egurastu airea hartu, despejatu	Hiriko kaleetan barrena, egurastu asmoz ibili nintzen, eta ordubete beranduago, baretuagoa zegoen.	32
ehundegi oihalak ehuntzeko makina-gela	...igarobide batetik gela guztietara hel zitekeen: sukalde, ehundegi , <i>badstofs</i> edo familiako logela eta arrotzen logelara.	53
emeki-emeki ezari-ezarian, astiro	Hondartzara joan ginen, urak, emeki-emeki , gero eta gorago zetozen...	112
erasan eraso egin, oldartu	Baina, keinua egin orduko, suzko disko batek erasaten gaitu.	132
ernarazita jakin-minez	Irakaslea egon ezinik utzi nuen. Ernarazita .	122
errukitu gupidatu, pena sentitu	... errukitu egin nintzen irakasleaz.	24
espetxe presondegia, kartzela	Egia esan, espetxe ikaragarri baten preso geunden	109
etendura arrakala, pitzadura, zartadura	...eta ura lurraren etenduretan sartu zenean, erreketak berriak sortu ziren.	30
ez atzera ez aurrera trabatuta	...ikasle batzuek barre egiten zioten esaldi zailtan, ez atzera eta ez aurrera , mututzen zenean.	10
ezbehar istripua, zoritxarreko gertaera	Ezbeharririk ez genuen izan behinik behin, eta pozik geunden.	52
fardel paketea	Geure fardel eta traste ugariarekin bere etxera joan ginen.	45
ferratzaile abereei ferrak jartzen dizkiena	...izan zen ferratzailearen erantzuna.	55
fiordo glaziarrek eratutako itsas-harana	...Saurboer Anexian zehar itsasora heldu ginen: fiordoaren ertz batera.	51
gibelandi patxadatsua	Gizaki isil, zuhur, gibelandi hura.	48
gotzain apezpikua (<i>obispo</i>)	Gotzainaren laguntzaile Picturson jauna...	41
granito harri kristalizatu gogorra	Orduan, granitozko hormetatik zetorren hotz berezi bat...	87



haitz arroka	Ordu gutxi barru agertuko dira granitozko haitzak .	83
harpe haitzuloa, kobazuloa	Euria gogor ari zuen, eta harpe batean babestuta, nola edo hala lo egin genuen.	133
hedaketa soinuaren mugimendua	Hedaketaren abiadura 340 m/seg denez gero, 6.800 metro daude gu bion artean...	104
herdoildu ugertua, oxidatu	—Ez, osaba. Aizto hau erabat herdoildua dago. Ehunka urte darama honek hemen.	142
hitz-hots zurrumurrua	Hitz-hots hura neuk esandako hitzen oihartzuna ote zen ere bururatu zitzaidan.	101
hondar harea	Lurra, berriz, hondar finez estalia. Ez zegoen ezer pizturik; ez zuzi, ez kriseilurik.	106
igarobide korridore, pasilloa	... igarobide batetik gela guztietara hel zitekeen: sukalde, ehundegi, <i>badstofs</i> edo familiako logela eta arrotzen logelara.	53
ikusmiran ibili gainetik begiratzen	...gaur goizean Hevellus judutarraren liburutegian ikusmiran nebilela ikusi dut.	12
iltze zura jostekoa (<i>clavo</i>)	Elektrizitate disko horrek almadiako tresna [...] eta burdin guztiak imaneztatu ditu, eta nire oinetakoen iltzeak lurreko burdin xaflari lotuak daude.	132
inondik ere zalantza barik, duda gabe	Etxe barrura sartu gintuen hark; arrotzen gelara. Estu eta zikinena zen inondik ere gure gela.	56
intziri hasperena, putza botatzea	Gelan etzanda joan zen bide guztian, kulunkada bakoitzean intziria zeriola.	42
iparrorraz brujula	Har ezazu iparrotza , Axel.	93
isurki jariakina	... isurkiak ziren sumendiaren loaldi ala esna aldiaren adierazle.	57
izaera aiurria, nortasuna	...baina, izaera nabarmena ez du galduko hil arte.	10
iztupa lihoa, kalamu landare haria	...harri eta iztupaz ura zerion zuloa ixten saiatu zen.	89
jaki-edariak hornidura, zuzkidura	Laugarren fardelean jaki-edariak zeuden.	49
kantxilkada urontzia	Hansek, berriz, betetako kalabazaz gainera, kantxilkada bat ur gehiago hartu zuen, bazen ez bazen ere.	58
kapelu sonbreirua	...jaiki, kapelua hartu eta kalera irteteko prestatu zen.	25
koskor alea, ziztrina	Reijawik osoan ez baitugu txalupa koskor bat ere.	47
kriptograma mezu zifratua	Hau kriptograma bat da. Egileak, letrak nahasian jakinaren gainean idatzi zituen...	15
kriseilu olio-ontzia, lanparatxoa	Lurra, berriz, hondar finez estalia. Ez zegoen ezer pizturik; ez zuzi, ez kriseilurik .	106
kronika kontaketa, narrazio ordenatua	Islandian agindu zuten norvegiar printzeen kronika .	12
kulunkada itsasontziaren zambulua	Gelan etzanda joan zen bide guztian, kulunkada bakoitzean intziria zeriola.	42
labezomorro intsektu zapala (<i>cucaracha</i>)	Oraingo labezomorroen antzeko oskol oso bat hartu eta osabari erakutsi nion...	77
lamara lurrun beroa,	Zilar urtua dirudien lamara dago hodeipean.	116



larrupaper pergaminoa	— Beraz, liburua berrehun urtez zaharragoa da larrupapera baino.	15
lema itsasontziak gidatzekoa	Hansek lema jarri zion azkenean almadiari, eta lehorrari lotzen gintuen soka askaturik, abiatu egin ginen.	115
lokarri soka, kordela	Erremintak ere hondartzan ikusi nituen; lokarri , eskailera, aitzur eta abar.	135
maiz askotan, sarri	Osabak pendulua maiz botatzen du uretara.	122
manometro presio neurtzailea	Aire konprimatuko manometroa , itsas mailako atmosferaren presioak baino handiagoak seinala zitzaizkien.	49
masta belaontzietako haga	Afalondoan, mastaren alboan etzanik, berehala lo hartu nuen.	116
matrila masaila, baraila	Matrila ere ez du txikia; 182 hortzetik gorakoa.	125
mea minerala	Edozein mea berehala sailkatuko zukeen hutsik egin gabe.	10
metatu pilatu	Metatutako lurrunen presio aldaketari zor zaio, noski, fenomeno hau.	130
miatu arakatu, aztertu	Haitzarte guztiak miatzen zituen irakasleak, zulo bila.	138
mineralogia mineralak ikertzeko zientzia	...eta mineralogian, jakina denez, badira erdi greko erdi latinezko esaera zailak.	10
mirari txiripa, zorte ona	Baina mirari bati edo, zerbaiti esker, bizirik atera nintzen.	107
muino mendi gaina, zapal antzekoa	Oinez joan ginen muino baten atzeraino.	114
musker narrastia	— Baita musker ikaragarri bat ere! —osabak berriz.	123
neskame zerbitzaria, otseina	...etxe osoa, kanpo eta barru, berea zuen. Han bizi ginenok ere bai: Gauben alabatzakoa, Marya neskamea , eta ni neu.	11
ohore dedu	Beraz, arraina bizirik geure eskutan edukitzea, ohore handi bat da.	117
oihartzun durundia, soinu errepikatua	Hitz-hots hura neuk esandako hitzen oihartzuna ote zen ere bururatu zitzaidan.	101
onddo perretxikoen gisako landarea	Onddo ikaragarriak ziren haiek.	110
ondoezik gaixorik bezala, pattal	Ostiralean, gaua ondoezik egarriz igarota, tunelaren barnera jarraitu genuen.	78
onetsi onartu, ontzat eman	Bedi, «Graüben golkoa» beraz onetsi zuen irakasleak.	115
orban mantxa, lohiunea	Bigarren orrialdean, tintazko orbana zirudien zerbait aurkitu zuen.	15
ordeka lautada, ordokia	Granito eta lur xehez osatua zen hura, eta bat-batean, ordeka zabal bat agertu zitzaigun begi aurrean: hezurrez betetako hilerri handi bat.	138
ortzimuga ostertza, zeru ertza, horizontea	Ortzimugan ez da ezer ageri.	116
permutazio ordena aldaketa	Atera kontuak, beraz, zenbat permutazio egin zitezkeen.	23
prestua formala, serioa	— Bai, Axel. Hans langile prestua da, eta egingo nuke zama ia osorik atera duela.	134



rixdal diru mota	Arratsaldeko hiruretan, Hansek, zegokion saria eskaturik, hiru rixdal jaso zituen nagusiarengandik.	122
runiko Europako alfabeto mota zaharra	Abedea runikoa da. Snorren Turlesonen eskuidatzien antzekoa. Baina islandiera zaharrez idatzia.	13
setatsu burugogorra, egoskorra	Osaba, hain setatsua izanik, goserik baldin badago, zalapartak aterako ditu.	9
takaka kolpeka	Gidaria takaka aritu zen haitza zulatuz. Jo eta jo, pikotxaren muturrak metro erdi bat sakondua zuen ordubete geroago.	88
traste tresnak eta gauzak	Geure trasteak bazter batean utzi genituenean, etxeko jaunak sukaldera deitu gintuen.	53
umezurtz guraso gabea	Ni, iloba eta umezurtz nintzenez, osabak jaso ninduen.	11
urratu zauritu	Trumoiak berriro, jo eta ke danbaka, belarriak urratzeko zorian.	131
zakar latza, gaiztoa	Almadia geldi dago, itsaso zakarraren erdian.	131
zemaion ematen zion	Berrogeita hamar urte izan arren, gazte itxura zemaion bekokia zuen...	11
zingiratsu paduratsua, ur askoko lurraldea	Gardar utzi orduko, lurraldeak beste itxura bat zuen; zingiratsuagoa zen.	54
ziratekeen izango ziren	Eta hala baldin balitz, nire barau eta gosealdiak alferrekoak ziratekeen .	24
ziri falka (<i>cuña</i>)	...aizkora bat, mailu bat, dozena bat iltze eta ziri eta lokarri korapilatsu luzeak.	49
zizpa eskopeta	Zizpa eskutan hartzen dut.	124
zoko txokoa	Bazter guztiak miatzen hasi ginen berehala. Zoko guztiak aztertu genituen.	142
zuhur azkarra, burutsua	Gizaki isil, zuhur , gibelandi hura.	48
zuzi lastargia, tortxa (<i>antorcha</i>)	Lurra, berriz, hondar finez estalia. Ez zegoen ezer pizturik; ez zuzi , ez kriseilurik.	106